

2026MDIR0003

## ESKORIATZAKO UDALAREN ETA BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Eskoriatzan, azken sinadura elektronikoaren datan.

### BILDU DIRA

Alde batetik, **EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA** jauna (NAN: **UDALEKO** (aurrerantzean, Udala) alkate-udalburua.

**ESKORIATZAKO**

Bestetik, "**BAILARA INDUSTRIAL NETWORK**" (aurrerantzean, BAILARA) elkarteko presidentea, **DANIEL MIGUÉLEZ MARTÍN** jauna (IFK: \_\_\_\_\_).

### ADIERAZTEN DUTE

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua arabera, Udalaren helburuetako bat udalerraren garapen ekonomiko eta soziala sustatzea dela.

BAILARA irabazi-asmorik gabeko elkarte dela, eta Debagoiena eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoan laguntzea dela elkartearen helburuetako bat.

BAILARAK lankidetzan jardun nahi duela Udalarekin, honako helburu hauek lortzeko:

- Udalerraren garapen ekonomiko eta sozialerako lankidetz-estrategia publiko-privatuak definitzea eta aplikatzea.
- Udalerraren etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egitea.
- Udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzea, horretarako bere esperientzia eta ezagutza eskainiz.
- Udalerrira enpresa berriak erakartzeko ekintzak sustatzea eta egitea, eta udalerriko enpresa gehiagok elkartean parte har dezaten bultzatzea.

BAILARAK 2026ko ekitaldirako lan-plan bat egin duela, eta plan horretan Debagoienaren eta bertako enpresen lehiakortasuna sustatzera bideratutako jarduera multzo bat jasotzen dela.

Ondorioz, helburu eta interes komunen arteko konbergentzia kontuan hartuta, bi erakundeek komenigarritzat jotzen dute lankidetz-loturak ezartzea lankidetz-hitzarmen hau sinatuz.

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 22. artikuluan jasotzen da, besteak beste, dirulaguntza zuzentzat joko direla toki-erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.



2023ko abenduaren 21ean, ESKORIATZAKO UDALAREN 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen; eta 2025eko urtarrilaren 30eko Udalbatzarraren osoko bilkuran, plan horretan jasotzen den zortzigarren ildo estrategikoan, “Sustapen Ekonomikoa eta Soziala” izenekoan, “BAILARA Industrial Networkentzat” dirulaguntza programa aurreikusten jarraitzea erabaki zen, eskualdearen garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

## **BALDINTZAK**

### **Lehena: Hitzarmenaren helburua**

Hitzarmen honen xedea da 2026ko ekitaldiko aurrekontuan BAILARAREN izenean dagoen dirulaguntza nominatiboa arautzea, bai ohiko funtzionamendurako, bai BAILARAK 2026. urtean lan-planean jasotako ekintzak gauzatzeko.

2026ko ekitaldirako lan-plan hori hitzarmen honen eranskin gisa eranstean da.

### **Bigarrena: Araudi aplikagarria**

Hitzarmen hau honako arau hauek arautzen dute:

- ESKORIATZAKO UDALAK dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen ordenantza orokorra.
- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lege hori garatzen duen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

### **Hirugarrena: Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Dirulaguntza hau jasotzea bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek (foru, autonomia-erkidego, estatu edo Europar Batasunekoek) emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Inola ere ezingo da finantzaketa bikoitzik eman, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, ezta gainfinantzaketarik ere ez.

### **Laugarrena: ESKORIATZAKO UDALAK hartzen duen konpromisoa**

ESKORIATZAKO UDALAK, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c artikulua arabera, BAILARARI 3.000 euroko (3.000€) dirulaguntza emateko konpromisoa hartzen du, 1 0100.481.422.00.01 2026ko aurrekontu-aplikazioaren kargura, ekitaldirako lan-planean jasotako jarduerak garatzeko.

### **Bosgarrena: Laguntzaren erabilera**

Emandako dirulaguntza Eskoriatzako enpresa-sarea mantentzeko, indarberritzeko eta sustatzeko lan-plana garatzeko erabiliko da, “BAILARA Enpresa Elkartearen Urteko Lan Plana” eranskinean zehazten den bezala.

Ez dira diruz lagunduko jarduerarekin zuzenean loturarik ez duten gastuak, hala nola bazkariak, kafetegiko gastuak, ezta behar bezala justifikatuta ez dauden gastuak ere.



## **Seigarrena: diruz lagundu daitezkeen gastuak eta baztertutako gastuak**

### **1. Gastu subentzionagarriak**

Dirulaguntza honen kargura diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- 2026ko lan-planaren exekuzioarekin zuzeneko lotura dutenak.
- Jarduerak gauzatzeko beharrezkoak eta ezinbestekoak direnak.
- Epe barruan egindakoak.
- Faktura baliozkoen eta ordainketa egiaztagarrien bidez justifikatutakoak.
- Ekonomia, efizientzia eta merkatu-prezioaren printzipioekin bat datozenak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua araberak.

### **2. Diruz lagunduko ez diren gastuak**

Ez dira inola ere diruz lagunduko gastu hauek:

#### **2.1. Gobernu-organoen ordainsariak**

Ez dira diruz lagunduko elkartearen gobernu-, zuzendaritza- edo ordezkari-organotako kide izateagatik sortutako ordainsari, konpentsazio edo ordainketak, edozein izen edo formarekin.

Bereziki, baztertuta geratzen dira: "junta zuzendaritzaren dedikazioa", "gobernu-organotako parte-hartzea", "barne-ordezkari- gastuak" eta antzeko izaera duten guztiak.

#### **2.2. Bazkideen edo kide lotuen zerbitzuak**

Ez dira diruz lagunduko bazkideek, zuzendaritza-batzordeko kideek edo haiekin lotura duten pertsonen emandako zerbitzuak, baldin eta ez badute benetako kanpo-kontratazio formal, aurretiko eta egiaztagarriak.

Ez dira onartuko: faktura generikoak, deskribapen nahikorik gabeko zerbitzuak eta egiaztatu ezin diren jarduerak.

#### **2.3. Kontzeptu generikoak**

Ez dira diruz lagunduko honako kontzeptu generikoak, baldin eta ez badaude behar bezala justifikatuak: "koordinazioa", "zuzendaritza", "elkartearen kudeaketa" edo antzekoak.

Kasua kasu, beharrezkoa izango da: jardueren memoria zehatza, dedikazioaren azalpena, emaitzen egiaztapena eta lan-planarekiko lotura zuzena.

#### **2.4. Xedearekin loturarik gabeko gastuak**

Ez dira diruz lagunduko subentzionatutako jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak, ezta barne-izaerako edo instituzional hutsak direnak ere.

#### **2.5. Interes-gatazka**

Ez dira diruz lagunduko interes-gatazka dagoenean eta behar bezala kudeatu ez denean.

Bereziki, hornitzailea: elkarteko gobernu-organotako kide bada, edo haiekin lotura ekonomiko, familiar edo funtzionala badu. Egiaztatu beharko da: beharrezko justifikazio sendoa, merkatu-prezioaren egokitasuna eta erabaki-prozesuan inpartzialtasuna. Bestela, gastua ez-egokitzat jo ahal izango da justifikazio edo kontrol fasean.



### 3. Interpretazio-irizpidea

Interpretazio eta kontrol ondorioetarako:

- Dirulaguntzak lan-planeko jarduerak finantzatzen ditu, ez elkartearen egitura organikoa.
- Faktura izateak ez du automatikoki gastuaren onargarritasuna bermatzen.
- Udal organo kudeatzaileak egiaztatuko du gastuaren benetako exekuzioa, beharra eta egokitasuna.

#### Zazpigarrena: Hizkuntza-betebeharrak

Euskararen erabilera: Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren arabera, diruz lagundutako jarduerak herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana badakar, euskararen erabilera normala bermatu beharko da.

Hori kontuan hartuta, BAILARAK proiektua aurrera eramateko eta lan-plana gauzatzeko:

- Udalarekiko eta proiektuaren hartzaileekiko nahiz eragileekiko harreman guztietan euskararen erabilera bermatuko du, bai ahoz bai idatziz, eta horretarako euskara zuzen eta egokian jarduteko behar besteko hizkuntza-gaitasuna duten langileak jarriko ditu.
- Jarraipen Batzorderako izendatuko den ordezkariak ere behar besteko gaitasuna izango du bere egitekoak euskaraz gauzatu ahal izateko.
- Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria teknikoa eta ekonomikoa) euskara hutsean aurkeztuko da.

#### Zortzigarrena: Ordaintzeko modua eta epeak

Dirulaguntzaren %60 lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzean ordainduko da, eta gainerako %40 justifikazioa egin ondoren.

Dirulaguntza honela ordainduko da:

%60a ondorengo dokumentazioa digitalki aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- 2026ko jarduera-programa.
- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edo jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Dirulaguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.
- Gainerako %40a organo eskudunak dirulaguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan.

#### Bederatzigarrena: BAILARAREN betebeharrak

Hitzarmen hau sinatzeagatik, BAILARAK honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

1. Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.
2. Hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzea.
3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan jasotako egoeraren baten pean ez egotea.
4. Finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketak onartzea eta legez eskatzen diren datuak ematea.



5. Kontabilitate-liburuak, erregistro bereziak eta gainerako dokumentuak edukitzea.
6. Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten dokumentuak gordetzea.
7. Jasotako funtsak itzultzea, legean ezarritako kasuetan.
8. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan zehaztutako gainerako betebeharrak betetzea.
9. Hizkera ez-sexista erabiltzea memoria, proiektu eta gainerako testuetan, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatzea.
10. Udalak eskatzen dituen bilera eta jarduera guztietan agertzea, eta eskatzen zaion informazioa ematea.
11. Diruz lagundutako jardueren ondoriozko esku-hartze publikoetan, argitalpenetan, liburuxketan eta publizitatean euskara erabiltzea.
12. Diruz lagundutako jardueren ondoriozko komunikazio guztietan hizkera ez-sexista erabiltzea bermatzea.

#### **Hamargarrena: Hitzarmenaren zabalkundea**

BAILARAK bere gain hartzen du Udalak bere jarduerak finantzatzen lagundu duela aipatzeko erantzukizuna, egiten dituen ekitaldi, agerraldi eta adierazpen publikoetan, baita diruz lagundutako jardueren ondoriozko argitalpen, liburuxka eta publizitate orokorrean ere.

#### **Hamaikagarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa**

BAILARAK 2026ko ekitaldian egindako jardueren justifikazio-memoria aurkezteko konpromisoa hartzen du. Gastuaren %100 justifikatu ezean, BAILARAK zati proportzionala itzultzeko konpromisoa hartzen du.

2026ko abenduaren 31rako, eta justifikazio ondorioetarako, BAILARAK ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean:

1. Eskaera telematikoa.
2. Elkartearen jarduera osoaren memoria.
3. Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, banatutako materiala, prentsa oharrak eta abar).
4. Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
5. Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
6. Elkartearen gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia eta froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna. LAGINKETA TEKNIKA. Gastu zerrendatik, udal kontuhartzaitzak eta arloko teknikariak elkarrekin aurrez aukeratuta, eta eska daitekeen gutxienez, aitortutako gastuen zenbateko osoaren % 20tik gorako gastu portzentajea egiaztatuko da (gutxienez, emandako dirulaguntzaren besteko kopurua izan beharko da). Gastuak justifikatzerakoan aitortutako gastu



zerrendan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira dirulaguntza kitatzerakoan.

Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuak. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatu ahal izango dira.

Fakturrek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- Elkarrekin ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, kostu totala unitateko, kostu totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.
- Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

Fakturen eta ordainagiriaren data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira 2026ko lan-planaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Langileen gastuak justifikatzeko: Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostua.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (*TC/1 eta TC/2 dokumentuak*) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa epe barruan ez aurkezteak kitatzeko gelditzen den dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du bestelako tramiterik egin beharrik gabe, eta baita ere, Udaleko dagokion unitate administratiboak ofizios hastea ordaindutako diru laguntzen aurrerapena itzultzeko espedientea.

Era berean, aurkeztutako justifikazioari buruzko argibideak behar izanez gero edo dirulaguntza kudeatzen duen departamenduak egin beharreko txosten teknikoan gabeziak antzematen badira, eta gabezia horiek hasiera batean emandako dirulaguntzaren eta azken kitapena egiteko proposamenaren artean doitu beharra edo desbideraketa esanguratsua eragiten badute, dagokion udal erabakia hartu baino lehen laguntza kudeatzen duen departamenduak 7 egun naturaleko epea emango du aipatutako gabeziak konpondu ahal izateko edo egoki irizitako azalpenak emateko edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztiori, azkenean har daitezkeen udal erabakien aurka bidezko diren errekursoak aurkeztearen kaltetan gabe.

### **Hamabigarrena: Jarraipen batzordea**

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen-batzordea eratzea. Batzorde horrek aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du, eta etorkizunean sor daitezkeen auziez arduratuko da.

Batzordeko kide izango dira:

Udalaren aldetik: Garapen Jasangarriko zinegotzia edo hark eskuordetutako pertsona.



BAILARAREN aldetik: lehendakaria edo hark eskuordetutako pertsona.

**Hamahirugarrena: Ez-betetzeen ondorioak**

Sinatzailleetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez-betetzeak kalte-ordaina ekarri ahal izango du, egiaztatutako kalteen arabera.

**Hamalagarrena: Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, biak barne.

**Hamabosgarrena: Hitzarmena azkentzeko arrazoiak**

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean azkenduko da. Era berean, aldeetako batek baldintzaren bat betetzen ez duenean ere suntsitu ahal izango da, betiere hilabete lehenago fede-emaile bidez jakinarazita.

**Hamaseigarrena: Datuen konfidentzialtasuna eta babesa**

Udalak eta BAILARAK konpromisoa hartzen dute beren jardueraren ondorioz eskura ditzaketen informazio eta datuen izaera konfidentziala errespetatzeko, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.

**Hamazazpigarrena: Hitzarmenaren izaera**

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik edo ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortzen badira eta Jarraipen Batzordeak konpondu ezin baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bidez ebatziko dira, uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

**Eta ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute, ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.**

Daniel Miguélez Martín  
BAILARA elkarteko presidentea

Edorta Zubizarreta Alegria  
Eskoriatzako alkatea



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026MDIR0003-Hitzarmena/Convenio ()

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JOSE DANIEL MIGUELEZ MARTIN  
Data / Fecha: 2026/06/19 12:38:10

**Digitalki sinatua:**



**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**

**Alkatea**

**Data:** 2026/06/19 12:45:30